

## Donostian, 2002ko martxoaren 22an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,  
Henrike Knörr, buruordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Antonio Arana, diruzaina,  
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua,  
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,  
Patxi Altuna,  
Miren Azkarate,  
Andolin Eguzkitza,  
Patxi Goenaga,  
Andres Iñigo,  
Juan Mari Lekuona  
Frantzisko Ondarra,  
Txomin Peillen,  
Pello Salaburu,  
Juan San Martin  
Ibon Sarasola (goizez)  
Jose Mari Satrustegi  
eta Piarres Xarritton, euskaltzainak,  
Jose Luis Lizundia idazkariorde-  
-kudeatzailea,  
Patxi Salaberri Onomastika  
batzordekidea (1.2.1. gaian) eta  
Lourdes Otaegi, Literatura Ikerketa  
Azpibatzerdeko idazkaria (4. gaian).

Batzarra goizeko 10,15etan hasi da Euskaltzainburuaren zuzendaritzapean Donostiako ordezkartzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla. Jean Louis Davantek eta Henrike Knörrek beren ezin etorria adierazi dute., Halaber A. Urrutiak beranduago helduko dela jakinarazi du. Azken biok botoa A. Iñigori uzten diote.

*Aurreko batzar agiria onartzea*

Zuzenketa batzuk egin ondoren, aurreko akta onartu da.

*Patxi Zabaletaren amaren heriotza*

Euskaltzainburuak Patxi Zabaletaren amaren heriotzaren berri eman du. Haren ari-maren alde Leitza Otsailaren 25ean izandako hileta-elizkizunean Jean Haritschelhar, Piarres Xarritton, Juan San Martin, J.M. Satrustegi, Andres Iñigo, Andolin Eguzkitza eta X. Kintana euskaltzainak, Jose Luis Lizundia idazkari-kudeatzailea eta Juan Jose Zearreta ekonomi eragilea izan ziren.

*Abonagarri-agertze zerrenda*

Ondoren **abonagarri-agertze** zerrendako **adinetaratu** hitza dela, **adineratu** aldakia hobetsi da: **adinetaratu** h. **adineratu**

*Agi-ahozuri zerrenda*

Geroago Pello Salaburuk aurkezturiko *agi-ahozuri* zerrendako hitzak aztertu dira.

Hasteko, *Bazt.* eta *Saih.* laburdura guztiak kendu eta lehengo sistimara itzultzea proposatu da. Mirenek batzordetik hola datozela esan du, eta berak eskuarki kendu ohi zituela. Kentzeko proposamena ontzat eman da.

Era berean AS laburdura kentzea erabaki da, bai zerrendetan eta bai web orrian.

Ibon Sarasolak bigarren itzuliko erabakiak, azken orduan berriz ikustekoak direnez gero, beste letra batez markatzea proposatu du, azken ukitu hori errazteko. P. Salaburuk ere web orria birbegiratu behar dela dio. Goenagak bereizketa horiek letra tipo ezberdinez egiteak ekar litzakeen zailtasunak aipatu ditu, baina konforme dago, ahal izanez gero, horiek nolabait markatzeaz. J. Haritschelharrek uste du on litzatekeela era horretako hitzak P. Salaburuk Arantzazurako bilerarako aztertzea.

Ibon Sarasolak proposatu du web orrian abisua egitea, oraingo pasaldi honetan onartzen ditugun hitzak baina euskara batua liburuan agertzen ez direnak behin-behinekoak direla azaltzeko, geroago bateratze-aldaketaren baten zain egon daitezke eta. Ontzat eman da ohar hori egitea.

Zerrendako ondoko hitzak honela uztea onartu da:

**aginduzko** *izlag.* 1 «nahitaez bete beharrekoa» *aginduzko araua, aginduzko proba* 2 «hitz emandakoa».

**agindu**-ren adiera ezberdinak uztailean berrikusteko utzi dira, koherentziaz jokatzeko.

**agiraka:** *batez ere Bizk.* eranstea onartu da.

**agaramontar:** aldaki guztiak, (\*agaramondar, \*agramondar, \*agramontar, \*agramontes, \*beauondar) eranstea onartu da, gaitzesten direla argitzeko.

\*aguakate e. **ahuakate**.

**ahal** ordenatzeko proposamena

**ahal 1** *iz.* *ahala du hori egiteko.* Era burutuaren ondoan, «*ahal d(ir)en guttia(k); esan ahalak esan dizkiote elkarri; egin ahalak egin dituzte.*

**ahala eman**

*ahala egin nire ahala egin dut; bere ahala egiten duena.*

**ahal 2** partikula modala, desira adierazten duena: *egingo ahal du!*; *ez ahal da eroriko!*

**ahal izan**

**ahal adina**

**ahal adinako**

**ahal beste**

**ahal bezain**

**ahala bezainbat**

**ahal bezala**

**ahala** adlag. 1 (aditzaren era burutuaren ondoan) «-en neurrian» *iritsi ahala eseri dira; platerak atera ahala husten ziren* 2 *koka ahala jende sartu zen.*

**ahalaz** *Lap. eta BNaf.* «ahal den neurrian» *euskara ahalaz garbia darabil; saiatzen dira ahalaz gordetzen lehengo ohiturak; baina horretarako borrokatu behar eta ahalaz denak elkarrekin.*

**ahalik (eta)**

**ahalbideratu** h. **ahalbidetu**.

**ahaldu** kentzea erabaki da.

**ahaldun** *Batzar Nagusietako ahaldun edo ordezkari* «*apoderado*» (*Bizkaian*) *eta «procurador» (Araba eta Gipuzkoan) deitu izan zaie historian zehar.*

**agintera** *Gram.*

**ahalera** *Gram.*

**ahalke izan** *Batez ere Ipar. da ad.. hartaz ahalke naiz, semearen ahalke dira.*

**ahalmendu** kentzea erabaki da.

**ahalorde** *abokatuari eskura eman zion ahalordea.*

**ahalorodun** kentzea erabaki da

**ezin ahantzizko** ez sartzea erabaki da.

**aharantza:** *Zah. Ipar. «mintzaera»*

**aharito:** *Bizk. «ahari(ko)a».*

### **Onomastika: Nafarroa Behereko Herri-izendegiaren 3. zerrenda.**

Eguerdiko 13,38etan, hiztegi batuko eztabaidak etenda, bilera-aretora Patxi Sala-berri sartu da, Onomastika batzordeak prestatutako Nafarroa Behereko herri izendegia azaltzeko. Egin zaizkion galderak eta eskaturiko argitasunak erantzun ditu (*Isturitz* eta *Bastida Klarentza* hitzei buruzkoak). Zerrenda honi buruzko proposamenak apirilaren 20ra arte egin daitezke.

Bilerak arratsaldeko 4etan segitu du, hiztegi batuko goizeko hitz zerrendaren hariari jarraikiz. Hurrengo hitzak honela erabaki dira:

**ahate beltz:** espezie berezia zen ala ez ikusteko utzi da, eta honetan A. Eguzkitzak, X. Kintanak eta P. Salaburuk, gaia aztertu ondoren, erabakitzen zutena onartzea erabaki da.

**ahazmen:** g. e.

**ahaztuarazi / ahaztuezin / ahaztuezineko:** kentzea erabaki da **ahantz-** formen alde jokatu.

**aheri:** *Zah. g.e. «kantu-doinua»*

**aheria\* e. ahoeri** «ahoko eritasuna, bereziki mihian eta inguruetan gertatzen diren zaurixka batzuetan datzana».

**akidura** sartzea onartu da.

**aho** ahotik ezin utzi(zko)

**aho-artatzaile**

**aho batez**

**aho(a) bete:** *ahoa bete hortz/haginekin gelditu, utzi*

**aho(a) betean:** *gezurrik doilorrenak ahoa betean jaurtiz*

**aho(a) beteka**

**aho(a) beteko**

**aho(a) betez**

**aho(-)korapilo**

**aho-mihi** kasu markaren batekin erabiltzen da, eta pluralean edo mugagabe: *Jendeen aho-mihiek aldatu dute izen zaharra. Aho-mihitan erabiltzen dute maiz auzi hori. Gizalditik gizaldira aho-mihiz heldua.*

**aho zabalik**

**aho zabalka**

**ahoko soinu**

**ahotan**

**ahotan erabili**

**ahotan hartu**

**ahotik** **ahora**  
**ahoz**  
**ahoz aho**  
**ahoz behera**  
**ahoz gora**  
**ahozko**

aho bateko\* e. **ahobatezko**

**ahokada** sartzea onartu da.

**ahoko:** 1. *Ipar* pl. «hortz, hagin ordezkoak» 2 «zaldiei eta ahoan jartzen zaien uhalak».

**ahopildu, ahopil, ahopiltzen.** du ad.

**aho(-)soinu** sartzea erabaki da.

**ahozabal, aho-zabal** forma biak sartzea erabaki da.

**ahozuri, aho-zuri** forma biak onartu dira.

### *Eskuartekoak*

**Santurtziri esker ona:** Zuzendaritzak Santurtziko udalari eta herriko elkarteei eskerrak bidali dizkiela azaldu da, A. Eguzkitza euskaltzainaren sarrera-ospakizunean Euskaltzaindiari egindako harrera on eta izandako partaidetza bikainagatik.

**Literatura Sari Nazionalerako izendapenak:** Ministerioak antolatzen urtero dituen Literatura Sari Nazionalerako, Euskaltzaindiak aurten ondoko ordezkariak bidaltzea proposatzen du:

Poesia: Felipe Juaristi

Narratiba: Ana Toledo

Saioa: Henrike Knörr

Teatroa: Patri Urkizu

Haur eta gazteentzako literatura: Juan Kruz Igerabide

Itzulpena: Josu Zabaleta

Espainiar Letretako Sari Nazionalerako: Andolin Eguzkitza

### *XX. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa*

Euskaltzainburuak gure Akademiak aurtengo martxoaren 8an Zamudion Euskaltelen presidentea den Jose Antonio Ardantza jaunarekin sinaturiko hitzarmenaren berri eman du, horren bidez eta UZEIren lankidetasunari esker XX. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa eskaini ahal izateko. Honi buruz, Pello Salaburuk konexio-problema batzuk azaldu ditu.

### *Nafarroako Gobernuarekiko harremanak*

Ondoren Andres Urrutiak Nafarroako Gobernuarekin izandako harremanak azaldu ditu. Alde batetik, hitzarmen-jarraipeneoak martxoaren 11an Gasteizen bildu ondoren, orain arteko hitzarmenaren hausketaren konstatazioa Iruñera bidali da. Nafar gobernuak arazo honi buruz martxoaren 6an egindako gutuna ez zen garaiz heldu. Edonola ere, garbi dago Hitzarmen berria sinatzeko asmoa dutela eta datorren astean (asteartean) horretarako testu berria eskainiko digute. Idazki hori jasotzean, Zuzenda-

ritzakoen oharrekin, euskaltzain osoen artean banatuko da, guztien oharrak jasotzeko. Euskaltzainei eskatu zaie, bitartean solaskideei negoziaketan aritzen segitzeko baime-na ematea, testua aski umotua baldin bada, arazoak presa baitu. Ontzat eman da.

Nafar Gobernuak, halere, hitzarmen berria sinatzean Euskaltzaindiari iazko dirua ordainduko omen dio. Atlasari dagokionez, ez diete Euskaltzaindiak azaldutako pun-tei garrantzi handirik eman eta badirudi ontzat hartuko dituztela.

### *Literatura Batzordea*

Azkenik, Lourdes Otaegi bilera aretora sartu da, Literatura Batzordearen lanen berri emateko. Literatur hiztegia egiten dihardu. Horrek 600 sarrera inguru ukanen ditu, artikulua luze, ertain eta laburren artean. Jada 500 artikulua baino gehiago eginak dira. Lana atalka egin dute, lana informatizatuz: erretorika, literaturaren historia eginak dira (Kortazar, Igerabide, Luis Mari Muxika, eta X. Altzibarren laguntzarekin). Objektibo-tasuna eta informazio zehatza ematea dira helburu nagusiak. Datorren urtean antzerkiari eta metrikari ekingo diete. Poetika, literatur kritika eta ahozko literaturen atala oraindik egiteke daude.

Jean Haritschelharrek proposatu du lan horiek burutu ahala (erretorika etab.) *Eus-ker*a agerkariaren separata gisa argitaratzea. Gainera, Lourdesi eskerrak eman dizkio.

Peillenek oharra egin du, hor terminologiako gauza asko eguneratu behar direla azalduz, oraingo morfologia eta grafia onartuekin bat etor daitezen

Bilera arratsaldeko 6,20etan bukatu da.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Xabier Kintana